

Irunero

349

Maiatzak 15, 2019

Bidasoa KMO: Hurbileko ekoizpen eta kontsumoan oinarritutako filosofian

- 2 Irun-Alzo Irun Gaur
- 3 Berri laburrak
- 4-5 Bidasoa KMO
- 6 Atzokoak
- 7 Enpleguaren Astea
- 8 Kirolak: Zelaila lasterketa
- 9 Kirolak: Bidasoako Itzulia
- 10 Kolaborazioa: Ainara Maia
- 11 Haurren leihoa / Denborapasak
- 12 Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Kontenporanea
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Agenda

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



Argazkiak. G56594: San Juan plaza eta udaletxea, ezkerretara "Casino de la Amistad" eraikina agertzen da 1900 eta 1907 urteen artean. G56604: Ramuntxo trinketea eta alboko etxeak ikus daitezke, Iparralde etorbidean kokaturik zeudenak (1927-1930). G57464: Udal Korporetzako Udaletxera bidean San Pedroko mezaren ostean (1925-1926).

1919 urteko maiatzaren 25ean argitaratutako zenbakian "El Bidasoa" astekariko 195. aldizkariko zenbakiari dagokio. Aurreko zenbakietan bezalaxe, gai ugari lantzen dira astekariaren zenbaki berri honetan, San Martzial jaietako lehen prestaketaz hitz egiteaz gain.

"De elecciones" tituluarekin, Gorteetako hauteskondeez hitz egiten da, astekariak Azqueta hautagaiari babes osoa erakusten diolarik. Jarraian, "Ir a contra tiempo" tituluarekin "RE-LA-MI-DO"-k idatzitako iritzi-artikulu batean herritarren iritzia, prentsa eta botere-publikoaren arteko harremanaz hitz egiten da, berreskurapen prozesuan dagoen Alardeak merezi duen banda izan dezan. Zenbaki batetik bestera errepikatzen den "Anotaciones de un chismoso" atal ezagunean udaren etorrerarekin biztanleen janzkeran izan ohi diren aldaketak komentatu, kantineren hautaketa prozesuari erreferentzia egin eta musika emakumeak mendira gehiago igotzea eragin dezakeela aipatzen da.

Hurrengo artikuluan, Alardeko kide izan ahal izateko bete beharrezko baldintza zorrotzak salatzen dira. "Todo es música" atalean "Lamentaciones de un descontento" tituluarekin Udal Musika Eskolako Kurtso amaierako azterketak egiteko onartu den arautegiarekiko desadostasuna erakusten da.

Kirol kronikan, berriz, Arenas taldea Espainiako Txapelketan txapel-dun izan dela aipatu eta Real Union eta Stade Bordelais taldeek jokatuko duten hurrengo partiduez hitz egin da. Futbola alde batera utzita, Andoain eta Tolosako kross-ei buruzko informazioa ematen da, hortaz gain, San Pedroko krossa aipatzen da ere.

Ostean, tabakoaren inguruko artikulu batean prezio igoera eta kalitatearen murrizketa aipatzen da. "Jira y partido" tituluaren duen artikuluan mendi irteera baten kronika irakur daiteke, Katea auzoko frontoian jokatutako pilota partidu baten kronika tartekatzen delarik. "En el municipio" atalak, berriz, hiriko azken batzarretan hartutako erabakien berri ematen du. Jarraian, "Dialogo de actualidad" atalean elkarrizketa formatua erabiltzen da hauteskunde hautagaien inguruan hitz egiten da.

Azken artikuluetan, "¿Podrá ser?" tituluarekin edonon lotan gelditzen diren Espainiako beste probintzietatik etorritako langileen egoera salatzen da. Ondoren, "Hace años..." titulupean 1883 urtean argitaratutako albisteen errepaso egiten da. Azkenik, "Ecos de sociedad" gizarteko goi-mailako biztanleen azken nobedadeen berri ematen da, antzokietako programazioa errepasatuz eta Erregistro Zibilean erregistratutako azken irundarren izenekin, azken publizitate orrialdearen aurretik, astekariaren zenbaki berri bat ixteko.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



“Gu ere bertsotan” egitasmoaren barnean egindako lana jendaurrean aurkeztu dute Lehen Hezkuntzako ikasleek

“Gu ere bertsotan” egitasmoaren baitan egindako lana jendaurrean aurkeztu dute Lehen Hezkuntzako ikasleek. 2018-2019 ikasturteari dagozkion Bertso Jaialdiak maiatzeko hilabetearen zehar Amaia Kultur zentroan egingo dira lau saioetan. Hiriko Belaskoenea, Dunboa, Eguzkitza, Elatzeta, El Pilar eta Toki Alai ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartuko dute saio horietan.

Bertso Jaialdiaren barneko lehen saioa maiatzaren 7an egin zen, arratsaldeko 15:00etan, eta Eguzkitza eta El Pilar ikastetxeetako ikasleek kurtsoan zehar egindako lana erakutsi zuten bertan. Bigarren eta hirugarren saioak, berriz, maiatzaren 14an egin ziren. Arratsaldeko 15:00etan egin zen eguneko lehen saioan Elatzeta eta Eguzkitza ikastetxeetako ikasleek bertsotan aritu ziren. Arratsaldeko 18:00etan egin zen bigarren saioan Toki Alai zentroko ikasleen txanda izan zen. Bertso Jaialdiko azken saioa maiatzaren 21ean egingo da berriro ere arratsaldeko 15:00etan eta Dunboa eta Belaskoeneako ikasleek parte hartuko dute bertan.

Saio hauetarako sarrera librea eta doakoa

izan da, maiatzaren 14eko bigarren saioa kenduta, non emanaldiaz gozatzeko gonbidapena eskuratzea beharrezkoa izan zen. Amaia Kultur zentroan egindako saioetan hiriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleen parte hartzeaz gain, ikasleak Ander Lizarralde eta Unai Ormaetxea bertsolarien gidaritzapean aritu ziren.

Bertsolaritza sustatzeko programa

Bertsolaritza sustatzeko programa honek ahozko komunikazioa lantzea du helburu, bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz. Zehazki, proiektu honek bi helburu nagusi dauzka. Batetik, bertsogintza bitarteko delarik, hau da, eskola curriculumean bertsolaritza ezartzea ikasleen euskararen erabilpen maila eta kalitatea handitzeko. Bestetik, gazteen artean bertsotarako zaletasuna piztea eta bertsogintzari eskolako jardunean funtzionalitatea emanik, zaletuen beharrak eta gogoak elikatzea.



Ingurune naturala eta bertako espezieak babesteko aurrera eramandako ekintzen errepasoa egin du Agenda 21ek

Ingurune naturala eta bertako espezieak babesteko aurrera eramandako ekintzen errepasoa egin du Agenda 21ek. Ekintza gehienak 2015eko apirilko Agenda 21eko Ekintza Planean bildutakoak dira, horiek burutzeko araudia eta gestio neurriekin zehazturik azaltzen direnak. Guztira, 16 hektarea baso-berritzea lortu da hiru urteko epean eta ekintza guztien kostuak batuta gastua 508.779 eurotakoak izan da.

Ekintza gehienak habitata eta espezien kontserbazioa bilatzen duten ekintzak dira. Zehazki, aurrera eramandako ekintzak basoen berreskurapena bultzatu, zuhaitzen hazkundera lagundu, sasi mozketaren bitartez sute arriskua murriztu, espezie ezberdinen arteko lehia gutxitzeko hautatuak izan diren espezien hazkundera laguntzea izan dira.

Ekintza hauei guztiei 2016 urtera arte hirian jaiotako haurren omenez landutako zuhaitzak batu behar zaizkie. Hain zuzen ere, ekintza honen barnean 1.070 espezie landatu ziren, hutsik zeuden lur-sailak agortu arte. Ordutik aurrera, zuhaitzak landatzeari utzi eta ume bakoitzari eskura gorosti eta liburu bana eman zaizkie.

Gainera, anfibio eta bestelako faunaren biziraupena bermatzeko Siutz bezalako eremuetan urmael txikiak eraiki dira 2015 urtetik aurrera. Minazuri eta Ingelesaren

Gazteluan ere antzeko urmaelak sortu ziren 2016 urtean. Guztira, putzuen eraketak 14.880 eurotako kostua izan du.

2015 urtetik 2018 urtera hirian babestutako espazio publikoen lur eremua handitzea lortu zen 180.000 eurotatik hurbil egon zen inbertsioari esker. Eskualdeko flora eta fauna ezagutarazteko parkearen barnean kokatutako Lapurriturri informazio puntuak lan handia egin du. Hain zuzen ere, 2015 eta 2018 urteen artean 4.834 pertsona pasa dira bertatik informazioa eskuratzeko eta 528 pertsonen parte hartu dute antolaturiko ekintzetan.



Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Bidasoa KM0: Hurbileko ekoizpen eta



Behe Bidasoa eskualdeko Al-datsa, Labore Txingudi eta Hiritik At kooperatiben elkarlanetik sortutako proiektua da Bidasoa KM0. Eskualdean bertan ekoiztutako produktu eta elikagaien kontsumoa bultzatzeko helburu nagusia duen proiektu berritzailea da. Honela, kontsumo filosofia berria hau etxe eta familia nukleoetatik atera eta publiko zabalago baten-gana iristea bilatzen da.

Hiru elkarten elkarlan eta ideia partekatuetatik sortu zen proiektua da. Proiektuaren barnean lanean ari den Ione Fernandez Zabalek azaldu du, "proiektua oso era naturalean martxan jarri zen". Alor honen inguruan lan egiten duten pertsona guztiak mahai baten inguruan elkartu eta hasieran ideia bat besterik ez zena aurrera ateratzeko. Lehen ideia

"Proiektua oso era naturalean jarri zen martxan"

Ione Fernandez Zabaleta, proiektuko kidea

sortu zenetik urte bat pasa da eta epe horretan proiektuak Eusko Jaurlaritzaren eta Europako laguntza bat lortu ditu.

Proiektuak agroekologia eta bertako ekologiaren sustapenean oinarritzen ditu bere helburu nagusiak. Horrela, kolektibo guztiei eta, bereziki, baztertuago aurki daitezkeen adineko pertsonen edo haurren kolektiboetara zerbitzua ematea du helburu. Modu honetan kolektibo guzti hauek kalitatezkoak diren elikagai osasuntsuak jasotzeko eskubidea bermatzea lortuko litzateke. Helburu nagusi hauen

bitartez, lehenengo sektorea indartzea lortzen da, bertako nekazarien lanari babsa emanez.

Bidasoa KM0k proiektuaren parte diren elkarten filosofian oinarriturik dago. Hau da, gertuko produktuen salerosketa bultzatu nahi da, era berean, bertako ekonomia eta enplegua sustatzen delarik. Honekin batera, garaiko produktuen kontsumoa sustatu nahi da, urtaro bakoitzari dagozkion barazkien ekoizpenean zentratzeko. Eneko Huarte Landachek adierazi duenez, "naturak markatzen du hemen erritmoa". Filosofiarekin loturik, "gure filosofiaren barnean harreman ekonomikoa aldatu eta naturarekiko dugun harremana indartzeko apustu egiten dugu", adierazi du Eneko Huarte Landachek.

Kontsumitzaile posibleak

Kontsumo katea osatzen duten agente guztiak kontutan hartu zituzten proiektua

"Naturak markatzen du hemen erritmoa"

Eneko Huarte Landache, proiektuko kidea

diseinatzerakoan. Ekoizleez gain, kontsumitzaileak eta horien beharrak aztertuz, zerbitzu honen erabiltzaileak izan daitezkeen kontsumitzaile posibleak identifikatzeko azterketa egin da. Lehenago aipatu bezala, familia nukleoez gain, eskaera handiagoak egin ditzaket bezeroak bilatzeko ahalegina egin nahi da. Jantoki sozialak, eskolak, adinekoen egoitzak eta jatetxeak identifikatzen dituzte nagusiki kontsumitzaile posible moduan.

Neumáticos
txepetxa



NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



a kontsumoan oinarritutako filosofia



Proiektu pilotua

Kontsumitzaile posibleen identifikazioaren barnean, proiektua eta eskaintako produktuen katalogoa aurkezteko lanetan dabilta une honetan. Proiektuko kidea den Oihana Galardi Ogallardek adierazi du, "proiektu aurkezten dugunean, kasu askotan jendearen motibazioa eta inplikazioa antzeman dezakegu". Lanean dabilta kideek azaldu dutenez, orokorrean, proiektuak harrera positiboa izaten ari da eta proiektua bideragarria ez den kasuetan ere, haiengana hurbildu izana eskertzen diete.

Argi dago kontsumitzaile bakoitzaren beharrak ezberdinak direla. Oihana Galardik azaldu duenez, orain arte aztertutako kasuek erakutsi dutenez, hautatutako kontsumitzaile posibleen artean, askok "catering" enprekin lan egiten dute.

Egoera hau sukalde edo antzeko instalakuntzen faltarengatik sortua izan daiteke. Egoera ikusita, ezinbesteko baldintza horiek betetzen ez dituzten kontsumitzaile posibleak alde batera uztea eta sukaldea erabilgarri duten zentroetan zentratzea da hurrengo pausua.

Datozen hilabeteetan ideiarene bideragarritasuna aztertzea murgilduko dira. Horretarako, irailtik aurrera proiektu pilotu bat martxan jartzeko asmoa dute Bidasoa KM0 proiektuaren bultzatzaileek. Honela, hainbat jatetxe produktu batzuetara atxikitzea bilatzen da, ezinezkoa baita sinestea aldi berean erabiltzaile guztiak produktu guztietara atxikiko direnik.

Etorkizunera begiratzen duen ideia

Lehen frogak gainditu ostean, etorkizunari begira egingarria izango den


proiektu batean bihurtu nahi da Bidasoa KM0. Proiektua ezagutzera eman eta ideia ingurukoei kutsatzea ezinbestekoa izango da horretarako. Era honetan, etorkizun-

"Proiektu aurkezten dugunean, kasu askotan jendearen motibazioa eta inplikazioa antzeman dezakegu"

Oihana Galardi Ogallar,
proiektuko kidea

nean ideia zabaltzea bilatzen da, beti ere tokian tokiko izaera eta gertutasun hori galdu gabe. Eneko Huarteren hitzetan, "hasieran harrera eremu murriztu batean gertatu zen, baina, hedabideen lanari esker, gure ideia zabaltzea lortzen ari gara".

Lurraz gain, proiektuak bestelako haragi ekoizle eta animalietatik deribatutako produktuak ekoizten dituzten ekoizleekin lan egiten du. Bertako proiektuaren bultzatzaileez gain, inguruko eskualde eta herrietan antzeko proiektuak aurrera eramane dituzten ekintzaileekin harremana mantentzen dute. Saretze hori lagungarria da elkarrizketak, esperientziak eta ezagutzak partekatzeko, proiektuak eremuari dagokionez gehiegi zabaltu gabe, gertuko kontsumoaren filosofia indartzeko.



Pertsonak zein taldeak kohesionatuak, zoriontsuak eta motibatuak izatea funtsezkoa da proiektu/enpresa baten etorkizuna bermatzeko!

www.anaeguiazabal.es
info@anaeguiazabal.es

- ✓ Saio indibidualak
- ✓ Egokituako tailerrak
- ✓ Taldeentzat prestatutako tailerrak

Ahots betera- noak Atzokoak abesbatzan kantari

Atzokoak 1985 urtean Donostiako Orfeoian edo Easo zein Ametsa bezalako abesbatzetan ibilitako irundarren musika koralarrekiko zaletasunetik sortu zen abesbatza da. Egun, zuzendariatz gain, 25 ahots beteranok osatzen dute abesbatza irundarra. German Gaminde abesbatzako kideak azaldu duenez, abestaldeak ekitaldiz beterik dauka datozen hilabeteetako agenda.

Hasierako urteak atzean utzita, nola iritsi da abesbatza gaur egun arte?

Lehenik eta behin abesbatza osatzen dugun abeslariak beterranoak gara eta, ondorioz, aurretik bestelako abesbatzetan ibiliak gara. Abesbatzak estatu eta Frantziako katedral, antzoki, adinekoen egoitza edo auditorietan kontzertuak eman ditu orain arte.

Noiz eta non elkartzen zarete entseguetarako?

Astean bitan dauzkagu entseguak, astearte eta asteazketan, arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara, baina, agendan dauzkagun konpromisoen arabera, entseguen iraupena luzatu daiteke.

Zein eratako musika motarekin lan egiten duzue?

Musika erlijiosoan oinarritutako errepertorioa daukagu, dena polifoniar, musika herrikoiarekin tartekatua.

Atzokoak Abesbatzan sartu ahal izateko, aurretiazko musika ezagutzarrik izatea beharrezkoa da?

Denak irundarrak garenez elkar ezagutzen gara eta musikalki bakoitzak izan ditzakeen mugak edo ahots motak ondo ezagutzen ditugu. Beraz, aurretik musika tladeren batean aritu den edonor sartu daiteke gurekin abestera.

Zeintzuk dira zuen hurrengo emanaldiak?

Emanaldi ugari dauzkagu hurrengo hilabeteetan. Maiatzaren 17an Anakako Kofradian kontzertua emango dugu. Maiatzaren 19an Irungo abesbatzekin batera Abesbatza Egunean parte hartuko dugu Amaia Antzokian.

Hurrengo astean, maiatzaren 25ean Pasionisten Elizan kontzertua izango dugu, izan ere, orain "Abesbatza Topaketak" izeneko ekintza berriari ekingo diogu eta Hendaiako Gazteluzahar abesbatza gonbidatu dugu. Etorkizunean abesbatzen arteko topaketak bultzatzea helburu duen ekimen honekin aurrera jarraitzea espero dugu.



Udarako hilabeteetan kontzertuak eskaintzen jarraituko duzue?

Bai, Ekainaren 8an Juncal Parrokian abestuko dugu. Jaien ostean, uztailean Santo Domingo de la Calzadako katedralean izango gara kontzertua eskeintzeko. Azkenik, uztaileko hilabetearen amaieran Behobiako parrokian kontzertua izango dugu auzoko jaiak ospatzeko.

Beste abesbatzekin elkartrukeak egiteko aukera aberasgarria da zuentzat?

Bai, bai gure abesbatzarentzat zein Irungo hiriarentzat, hemen hain ezagunak ez diren beste abesbatza batzuk ezagutzeko aukera izango baitugu. Horregatik, Udaleko Kultura arloarekin harremanetan jarri gara proiektu hau aurrera ateratzeko laguntzarik eman diezaguketen jakiteko, gastuak hor daudelako.

Irundarren artean publiko zabala izan ohi duzue?

Oso ona, askotan Amaia Kultur Zentroan ematen ditugu gure kontzertuak eta eserleku guztiak betetzea lortzen dugu kontzertu gehienetan, beraz, oso pozik gaude egun abesbatzak duen harrerarekin. Gainera, Santo Tomas egunean, abenduaren 21ean, gure egoitzan "txistorrada" antolatzeko ohitura dugu eta mundu guztia gonbidatzen dugu bertara. Honelako ekintzei esker ezagunak gara.

Etorkizunari begira, abesbatzaren erreleboan pentsatzen duzue?

Kezka hori daukagu, beterranoa den abesbatza bat garenez, ezinbestekoa da taldera jende berria erakartzea abesbatzaren etorkizuna bermatzeko. Horrela, orain arte betetako 34 urteak luzatu nahiko genituzke, jendeari abesbatzara batzeko beharrezkoa den formazio prozesua erraztuz.

Aukeratu zure etorkizuna

ATE IREKIAK 22

AURREMATRIKULA

ekainaren 3tik - 14ra

La Salle

Irún

943.32.61.77 | info@lansalle.com | Etxearen 114-115 | WWW.LANSALLE.COM

ZIKLO BERRIA ESKIALDEAN

- ✕
Mugimendu elektronikoa (lanbide maila)
- 📄
Informatika (lanbide maila)
- ⚙️
Administrazio eta finantzak (go. maila)
- 🏭
Automatizazioa eta robotika (instituzio go. maila)
- 🏭
Fabrikazio mekanikoko produktzioen programazioa (go. maila)

Lanbide Heziketa

180 lanpostu eskaini dira Enpleguaren Astean

Lan-elkarrizketa eta hitzaldiez gain, bisitariak momentuan bertan curriculuma hobetzeko aukera izan dute



180 lanpostu eskaini ziren maiatzaren 9an Ficoban antolaturiko Enpleguaren Astean. Irungo eta Hondarribiko Udalek, Bidasoa bizirik elkartearekin lankidetzan, Enpleguaren Astearen XXIII. edizioa antolatu zuten. Lana topatzeko azoka honetan ohiko lan-eskaintza, formazio tailerrak eta curriculuma hobetzeko guneaz gain, momentuan argazkia atera eta curriculumera argazki berriua gehitzeko aukera eskaini da aurten.

Guztira, goiz osoan zehar 400 pertsona inguru Enpleguaren Astea izeneko azoka bisitatu zutela kalkulatu da, bertan lan-postuetarako sarrera ahalbidetuko dieten elkarrizketak egin edo tailer ezberdinetan parte hartzeko. Miguel Angel Paezek, Bidasoa bizirikeko presidentea XXIII. Enpleguaren Astearen balorazio positiboa egin du. "Elkarrizketa hauek lan kontratuetan formalizatu ahal izatea espero dugu", gaineratu du elkartearen presidentea.

Enpleguaren Astearen barnean 46 enpresek 98 lan eskaintza azokara hurbildu zituzten 180 lan-postuetarako langileak topatzeko helburuarekin. Aurretik aipatutako lan-eskaintza horiei, azokara bertaratutako Enplegu Zerbitzu Publikoek aurkeztutako lanpostuak batu behar zaizkie.

Ficobako lehen solairuan kokatu diren enpresetara zuzenean hurbildu dira hautagaiak, aurretiazko hitzordurik gabe, eskura haien curriculuma entregatzeko. Lehen solairuan, berriz, El Espazio zerbitzuaren webgunean aurkeztutako eskaintzetan izena eman zuten pertsonen lan-elkarrizketak egin zaizkie, lanpostuak betetzeko enpresek bilatzen dituzten profilak betetzen dituzten ikusteko.

Banaketa, industria, administrazio-garraioa eta ostalaritza-zerbitzuak alorretan bildu dira eskari handiena izan duten profilak. Juan Mari Altunak, Bidasoa bizirikeko presidenteordea, hauxe adierazi du "enplegu eskaintza ugari eskaini ditugu edizio honetan. Bidasoa bizirikeko

"Elkarrizketa hauek lan kontratuetan formalizatu ahal izatea espero dugu"

Miguel Angel Paez, Bidasoa bizirikeko presidentea

urte osoan zehar egiten duen lanari gehitu behar zaio hori".

Curriculum berritzeko aukera

Curriculuman egin, osatu edo hobetzeko nahi zuten bisitariak arlo horretan adituak diren profesionalen laguntza izan dute haien merituak curriculumean erarik egokienean islatzen ikasteko. Horretarako, sei ordenagailu eta inprimagailu batekin ekipatutako gune bat osatu zen.

Aurten berrikuntza gisa, argazkilari profesional batek, azokako beste doako zerbitzu baten barnean, curriculumeko argazkia berri nahi zuten bisitariari argazkia atera zien, momentuan bertan curriculumean txertatu edo LinkedIn

"Enplegu eskaintza ugari eskaini ditugu edizio honetan"

Juan Mari Altuna, Bidasoa bizirikeko presidenteordea

bezalako plataformetan ipintzeko.

Prestakuntza eskaintza

Jardunaldian hiru hitzaldi-tailer egin dira enpresei gordetako gunea osatu eta enplegu aukeren bila dabiltzan pertsonentzako intereseko gaiei buruz mintzatzeko. Tailer horietan gure eskualdean aukeran dauden lanbide heziketa aukeren informazioa eskaini da.

Oscar Perezek era positiboan komunikatzeko kontutan hartu beharreko jarraibideen inguruko hitzaldi egoki eta interesgarria eman du. Haren aholkuak tailerlean parte hartu duten pertsonentzat erabilgarriak izango dira lan-elkarrizketetan haien burua aurkezterako orduan.

Bestalde, Gurutz Aguinagalde kirolari profesionala izandakoak, Kirolgi Fundazioaren bidez, bere esperientzia eta bizi-penetan oinarritutako eliteko kirolariak aldaketa egoeretan jarraitzen dituzten estrategiez hitz egin du. Ikaskuntza horiek proiektu pertsonaletara eta lan proiektuetara nola islatu azaldu du. Azkenik, Bidasoa Institutuak, Irungo La Sallek, Plaiaundi Institutuak eta Mendibil Prestakuntza Zentroak beren prestakuntza eskaintza azaldu diete interesdunei.



Zelaia lasterketa solidarioak Irungo landa eremua zeharkatuko du ekainaren 2an



Argazkia: Estudio Gover

Zelaia lasterketa solidarioak Irungo landa eremua zehartuko du ekainaren 2an. Hirian proba solidarioa antolatzen den hirugarren urtea izango da eta aurreko urteetako 5,68 kilometrotako ibilbidea errepikatuko da edizio honetan. Probarako izen-ematea maiatzaren 30era arte zabalik egongo da www.kirolprobak.com webgunean eta irabaziak Kemen kirol elkartera bideratuko dira.

Orain arte antolatutako probetan irabaziak ASANOL izeneko Lebereko nerbio optikoaren atrofiaren elkartera bideratu dira. Gaixotasun Arraro moduan ezagutzen den gaixotasunaren izena daraman elkarrea da, hain zuzen ere, Javier Placeresek, lasterketako antolatzaileak duela 5 urtetik ona pairatzen duen gaixotasun bera. Pedro Alegre kirol arloko ordezkariak azaldu du, "bigarren edizioa gaituta, Zelaia hirian finkaturik dagoen lasterketa dela esan daiteke".

Aurten, ordea, nobedade gisa lasterketako dortsalen salmentatik eskuratuko den dirua Kemen izena duen eta pertsona ezinduek biltzen dituen kirol elkartera bideratuko dira. Lasterketaren adeitasun keinu hau eskaintzeko asmoz, lasterketaren egunean bertan Kemen taldeak Handbike erakustaldia eskainiko du goizeko 10:15etan, kirol-proba hasi aurretik.

"Bigarren edizioa gaituta, Zelaia hirian finkaturik dagoen lasterketa dela esan daiteke"

Pedro Alegre,
Kirol ordezkaria

Hirugarren edizioan dortsalen prezioa mantentzea erabaki da jendearen parte-hartzea bultzatzeko. "Jendea proban parte-hartzea animatu nahi dugu, egunaz gozatu eta festa giroaz disfrutatzeko", azaldu du Javier Placeresek probako antolatzaileak. Txip propio duten lasterkariak 10 euroren truke eskuratuko dute dortsala. Dorsalaz gain txipa alokatu behar duten kirolariek, berriz, 12 euro ordaindu beharko dituzte.

Aurretik aipatutako dortsalez gain, 0 dortsalaren bitartez parte-hartzaileek probaren ibilbidea oinez egiteko aukera izango dute, 4 eurotako prezioaren bitartez proba diruz laguntzen duten bitartean. Kategoria honetan hurren izen-ematea

doakoa izango da.

Dorsalak Irungo Decathlon dendan jasotzeko aukera egongo da maiatzaren 31ean, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara, eta ekainaren 1ean, larunbatean, 10:00etatik 19:00etara. Gainera, probaren egunean bertan dortsalak irteeran jaso ahalko dira goizeko 10:30ak arte, proba 11:00etan abiatuko baita.

Probako parte-hartzaileak bi kategorietan banatuko dira, maskulinoak eta femeninoak. Bi kategorietan sailkatutako lehen hiru kirolariek sariak eta garaikurrak eskuratuko dituzte. Hortaz gain, parte-hartzaileen artean zozketak, pintxo-potea eta amaierako lancha antolatuko dira. Julian Iantzi telebista aurkezleak hiritarrak proban parte-hartzea animatu ditu honelako ekintzen antolaketa ezintasunak dauzkaten kirolarientzat oso beharrezkoa direla adieraziz.

Ibilbidea

Zelaia lasterketaren aurreko edizioetako ibilbide bera errepikatuko da aurten ere. Urdanibia plazako ingurutik abiatu eta lasterkariak Ibarlako gainera igo dira, Udal Mintegietaraino jaitsi ostean, Ola sargardotegiraino iristeko. Jarraian, Olaberriako gainera igo eta Ama Shantalen ermitaren inguruan amaituko da proba. Ibilbide bera izango da proba lasterka edo

"Jendea proban parte-hartzea animatu nahi dugu, egunaz gozatu eta festa giroaz disfrutatzeko"

Javier Placeres, Zelaia lasterketaren antolatzaileak

oinez egiten duten parte-hartzaileentzat.

Kemen kirol taldea

Kemen kirol taldea 1994 urtean sortu zen eskia praktikatzeko zuten kirolari ezinduek biltzen zuten ekimenetik. Kirol talde honen helburua kirolaren bitartez pertsona ezinduen gizarteratzea bultzatzea da. Horretarako taldeak bazkideei 3.000 euroko inguruko kostua duen materiala mailegatzeko die bazkideei, kirol berriak probatu eta kirola praktikatzeko aukera izan dezaten. Hortaz gain, taldeak aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen die erabiltzaile interesdunei.



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Carmelo Urbano izan da 47. Bidasoako Itzuliko irabazlea



Carmelo Urbano izan da 47. Bidasoako Itzuliko irabazlea. Txirrindularitza proba maiatzaren 8tik 11era antolatuta zen Txingudi bailaran, Nafarroako lurretan kokaturiko hainbat portu igotzearekin batera. Ohiko moduan, kirol proba 4 etapa ezberdinez osaturik egon da eta beste urte batez, estatu mailako klubak parte-hartzeaz gain, nazioarteko klubak lehiatu ziren proban.

Antxon Mendia itzuliko zuzendariak adierazi zuenez, "probaren irabazlea ezagutzeko emozioa azken etaparen amaierara arte mantendu zen". Izan ere, laugarren etaparen hasieran 13 txirrindularik zeuzkaten irabazteko aukerak 29 segundotan. Azkenean Banakako sailkapen orokorrean garaipena ez zen etaparen hasieran lehen postuan aurkitzen zenarentzat izan, baizik eta, Carmelo Urbanorentza "Cara Rural - Seguros RGA" taldeko S23 kategoriako txirrindularia, 10:45:54eko denborekin.

Bigarren postua AVC Aixen Provence taldeko Simon Carr-entzat izan zen, irabazlearekiko 5 segundotako aldearekin. Podiumeko hirugarren posizioan, berriz, Alejandro Roperok eskuratu zuen Ko-

meta Cycling Team taldearekin eta 10:46:55eko markarekin.

Taldeko sailkapen orokorrean Kometa Cycling Team izan da nagusi. Bigarren postua Caja Rural - Seguros RGA taldearentzat eta hirugarren sailkapena Lizarte taldearentzat izan delarik. Antxon Mendia itzuliko zuzendariak adierazi duenez, proban parte hartu zuten taldeen maila oso berdindua egon zen, izan ere, hirugarren etapara arte 137 kirolarik lortu zuten lasterketan mantentzea.

Ibilbideari dagokionez, aurreko edizioetako etapa gehienak moldaketa txiki batzuekin mantentzea lortu da, 3. etaparen salbuespenarekin, guztiz ezberdina izan baita. Lehen egunean txirrindulariak Irungo Urdanibia plazatik abiatu 104 kilometrotako ibilbideari aurre egin zioten. Lehen etapa burutu ostean, kirolariak Irrisarri Landeko helmuga aldapatsura iritsi ziren.

Bigarren egunean, probaren irteera eta helmuga Hondarribian kokatu ziren eta txirrindulariek 128 kilometro egin zituzten bizikleta gainean. Ziga igo ostean, helmugatik 10 kilometrora dagoen Jaizkibel igoerari aurre egin zioten txirrindulariek.

"2020 edizioan pentsatzen hasi gara jada"

Antxon Mendia, Bidasoako Itzuliko zuzendaria

Hirugarren etapa edizio honetako etaparik luzeena izan da 135 kilometrotako ibilbidearekin. Guztira, Nafarroan kokatutako 5 portuetatik igaro zena: Saldias, Gorostieta, Belate, Ziga eta Otsando. Hirugarren eguneko helmuga Udazubin kokatu zen.

Bidasoako Itzuliaren 4. etapan txirrindulariek joan den urteko etapa berdina errepikatu zuten. 77 kilometrotako distantzia izan dituen etapa honetan ere, kirolariak 5 portu igo zituzten, horietako 3 lehen kategoriak. Etapako lehen 25 kilometroetan Gurutze, Aritxulegi eta Agiñara igo zen pelotoia, Kolon Pasealekuan kokatutako helmugara iritsi aurretik, San Martzial eta

Erlaitzeko gainetatik igaro ziren.

Eguraldia lagun

Txirrindularitza probaren antolakuntzatik adierazi dute eguraldia lagun izan dutela probak iraun dituen egunetan zehar, hain zuzen ere, hirugarren etapa izan zen euria egin zuen egun bakarra, baina indar gutxiarekin, beraz, ez zuen txirrindularien erorketa garrantzitsurik eragin. Etapan zehar gertatutako erorketa bakarrak pilaketan ondorioz eragindakoak izan ziren, oso ohikoa baita honelako istripuak gertatzea metara hurbildu eta txirrindulariak posizio onak lortzen saiatzen direnean.

2020ko edizioa

Mendia itzuliko zuzendariak adierazi duenez, "2020 edizioan pentsatzen hasi gara jada". Hurrengo urtera begira hauek dira Bidasoako Itzuliaren antolakuntzak bere buruari ezartzen dizkion helburuak: etapa berriak diseinatzea, Gipuzkoatik igaroko den etapa bat egitea, talde italiar onena ekarri ahal izatea, sponsor berriak kontratatzea, babes instituzional handiago akordatzea, antolakuntzako kolaboratzaileen kopurua handitzea posible izanez gero eta, honekin guztiarekin, Bidasoako Itzuliaren maila altua mantentzea estatu mailan zein nazioartean.

Baigorri, 2019ko apirilaren 28an

NAFARROAREN EGUNEAN MATTIN ETA XALBADOR, IRRIAK ETA MALKOAK

Ainara Maya Urroz



Nafarroaren egunaren biharamunarekin idazten dut artikulu hau, eta Espainiako hauteskunde-gau mediatikoaren ajeaz izkiriartzen ditut eskutitz hauek, eskutik hatzetara hemen doakizue neure kronika pertsonala.

Aspaldi ohartu naiz ez dudala maitasunaren gibeletik joan beharrik, ni bainaiz MAITASUNA bera, eta ez dudanez oraindik alderdi politiko-poetiko bat sortu, BILDU nahi izan dut atzoko ene bizipen eta bizipoz puska bat zuek ere zerbait senti dezazuen neuretik. Goizean goiz iratzarri eta bozkatzera joan naiz Irunen, nire herrian, eta ondoren lagun batekin joan naiz Baigorriara, Pausu den mugaz gaindi eta poliziarik gabe.

Egun eguzkitsua lagun, iritsi ginen Nafarroa Behereko Nafarroaren egunera, hau-

teskunde espainiarren egunean nafarron (eskualdunon) batasuna ospatzeko. Izan ere, muga fisikorik ez dago jada, atzean gelditu dira duela 30 urteko mugako autoilara luzeak, baina orain muga mentalak ditugulakoan nago, eta horiek ene iduriko askoz ere bortitzagoak dira, prefosta! Malko batek irrist egin zidan Baigorriko zubitik behera.

Harrera beroa egin ziguten erraldoiek eta joaldunek, Xalbador eta Mattin erraldoiek irrizko eta malkozko begirada amultsua bota zidaten, eta irri bat nahiz malko bat eman nien bueltan. Harrera beroa egin ziguten ezagun eta lagunak mugaren alde batekoek zein besteok. Baigorriko plazan MAIATZ agertu zitzaidan apirilaren hondarrean eta ene aita zena amaiurtarraren biografia salgai ikusi nuen, eta irri bat marraztu zitzaidan Baigorriko pilota-

lekuko dantzariet begira.

Baigorri eta Amaiur ez dute inongo mugek bereizten, ez bada Izpegiko lepoa bien arteko muga fisiko paregabea, bereizteko baino gehiago lotzeko balio izan diguna mendetan zehar eta eutsi diezaiozun hori. Amaiurko jendea hauteskunde espainiarretarako Azpilluetan bozkatu ondoren, agertu ziren, gu bezala, elkarrengana biltzeko eta elkarri hats emateko, eta ahantz dezagun ez duguna eta bereizten gaituena, eta ez baikor ez ezkor atxik diezaiozun batzen gaituen horri: eskuara eta eskual kultura.

Plazera izan zen herri-bazkarian parte hartzea eta bertze amaiurtar eta eskualdun aunitzekin bazkaltzea: Harkaitz Garaialde hondarbiarra, Gaizka Aranguren iruindarra bertzeak bertze. Plazera izan

zen bazkalondoan kantuz aritzea Erramun Martikorena baigorriarrarekin eta Kuxkuxtu txarangarekin. Plazera zortziko, arin-arin, fandango eta mutxikoen airera dantzan biribildurik aritzea.

Sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik, muga oro, badena eta ezdena, ezabatu ditugu irriz eta malkoz, muga oroz gaindi eskualdunak gara eta elkarrengana biltzeko ahalegina egiten dugu kanpotik ezartzen zaizkigun muga mental horiek kentzeko.

*Libertatea hemen badugu
galde egin gabe nehork
elgarri esku eman dezagun
gostarik ere zernahi*

(Mendiaga)

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

La Salle HH



Denborapasak

Zazpi hitz: frutak

E D E Y E Z W Q Y R G I W M W V V
 E R L X L U O J B A O B M I V T Y
 U O Y O A C B Y L Y C O M K Y A A
 L A R A N J A K Z O L O S A H Q L
 E R A R I Y K E L E M J H A D E Y
 E E U Q L Y W E K A J Y Z I G Q L
 R A A S J C K S Q Y O P V G E A S
 A E Y I H G R O H P Z Y L O E U R
 E I P B L V E U H M U G U R D I M
 M U L P J P V R A Q C A N I E K A
 E A J Z E W Y E E P X Z I U A J H
 E E R M P L P R W Z K D G Z Z U A
 J O K R Z E D W O U I G F E Q E T
 M G I X U Y G C X O B U A F C T S
 L V W L N B Y K A O Z O U P V O U
 F M I Y W T I S I H M U X I P O H
 Y Y N M J W U Q X Q C O U E R L A

	3				5	8	7
	2		8	3	7		9
	4		5		3	7	1
	3	7		6	9		4
				7			9
	7		2				
	6			8		2	

Marrubi, mugurdi, kiwi, mahats, gerezi,
 laranja, sagar

Belaskoenea LH6

Euskaraz, Irunen barrena

Gure etxean iru lagun

Gure itxian iru lagun:
ama eta apaiza eta Erramun
orien bulla besterik etzen ezagun.

Senipartia partitzen:
apaizak ollua
eta amak paziya
au famili nasiya!

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959-X-24). "Gure
amak esatentzun maiz" (El Bidasoa, 1959-XII-5)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

emakume apartak

Mariasun Landa idazlea

- Mariasun Landa Mendizola Irunerria (Gipuzkoa), 1945. Elkarrekin bostak (10) zerbitzuan 24 urteko. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.
- Elkarrekin bostak (10) zerbitzuan 24 urteko. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.
- Elkarrekin bostak (10) zerbitzuan 24 urteko. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.
- Elkarrekin bostak (10) zerbitzuan 24 urteko. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.



Lucie

Sara Olaizola Alcántara

Sara Olaizola Alcántara (Gipuzkoa) emakumezkoen taldean.

- Jaiotzen da Irunen urterean 1997 urtean, Otari duzue 27 urte.
- Errelekin da.
- Prezioen ditu 62,00 kg.
- Naurien du 1,67 m.
- Mariño eta Olatzune jokatu zuen.
- Bere futbol-zelaia Zubietan da.
- Berekin bostak (10) zerbitzuan 24 urteko. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.



Lucy

EDURNE PASABAN ALPINISTA

- Edurne Pasaban Toison (Gipuzkoa) jaiotzen da 1971ko abuztuaren 1ean.
- Munduko hamalau zortimaleko gailuetan lehenengo emakumezkoen taldean 2001 urtean. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.
- 2001ean sartu zuen hamalau zortimaleko gailuetan lehenengo emakumezkoen taldean.
- Gaur egun Bartzelonan bizi da eta kateatzen lanetan dabil. Buzkarrak gaitortuak. Irudiak.
- 2001ean sartu zuen hamalau zortimaleko gailuetan lehenengo emakumezkoen taldean.
- 2001ean sartu zuen hamalau zortimaleko gailuetan lehenengo emakumezkoen taldean.




Edurne

BARBARA GOENAGA

- Barbara Goenaga (Gipuzkoa) jaiotzen da 1988ko urtearen 10ean eta 25 urte ditu. Irudiak.
- Barbara Goenaga (Gipuzkoa) jaiotzen da 1988ko urtearen 10ean eta 25 urte ditu. Irudiak.
- Barbara Goenaga (Gipuzkoa) jaiotzen da 1988ko urtearen 10ean eta 25 urte ditu. Irudiak.
- Barbara Goenaga (Gipuzkoa) jaiotzen da 1988ko urtearen 10ean eta 25 urte ditu. Irudiak.



Barbara



Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

Kontenporanearen IV. edizioak San Juan plazaren inguruneak beteko ditu maiatzaren 17tik 19ra



KEOA

Maiatzaren 17tik 19ra San Juan plazaren inguruak beteko ditu Kontenporanearen 4. edizioak. 2015 urteko aurrekontu parte hartzaileetan jaio zen arte garaikidearen inguruko jaialdi hau martxan jartzeko ideia. Elkartrukea izango da laugarren edizio honetan jaialdiaren ardatza, gizakia eta gizakia ez denaren arteko harremanean sakontzeko.

Kontenporanea Irungo Udako Kultura eta Kirol Arloek sustatutako eta Bitamine Faktoria sormen eta ekoizpen lantegiak kudeatutako arte garaikidearen topaketa da. Arte, kultura eta diseinu arloko gaz-

teen batzorde batek koordinaturik, programak lurraldeko proiektu artistikoak ikusarazi eta bertako zein kanpoko artista eta sortzaileen esperientzia elkarbanatzea ditu helburu.

Kontenporaneak hiritarrei arte garaikidea eta kultura hurbiltzen die, artista gazteei haien proiektuak erakusteko aukera ematen dien bitartean. Helburu hori aurrera eramateko, jaialdiaren antolakuntzarako komite berri bat eratzen da. Aurtengo batzordea Miguel Matador, Maialen Caballero, Haizea Olaizola, Julen Sanchez eta Fraida Drakonaki gazte greziarrak osatzen dute.

Antolakuntza komitea martxoan hasi zen aurtengo jaialdia antolatzeko lehen pasuak ematen. Jaialdian parte hartzeko proposamenak jasotzeko deialdia martxoaren 22tik apirilaren 22ra arte egon zen zabalik. Artistek era indibidualean edo taldean izan dute proposamenak egiteko

aukera, adin mugarik gabe eta edozein arte diziplinaren inguruan. Azkenean, antolatzaileek 10 herrialde ezberdinetako sortzaileen 40 proposamen ezberdin jaso zituzten eta, azkenean, 10 izango dira aurtengo edizioan parte hartuko duten artistak.

Ekintzez betetako asteburua

2019ko Kontenporanearen barneko lehen ekintzaz maiatzaren 17an, ostiralean, egingo dira. Arratsaldeko 19:00etan Kontenporanea eta erakusketaren irekierari ekingo zaio. Ordu berean, Nomad Studio osatzen duen bikoteak Irungo pasaia eta biztanleak erretratatuko ditu, munduko hainbat tokietan egin bezala. Jarraian, Ibai Sarasketa artista irundarrak graffiti bat egingo du zuzenean.

Larunbatean, 10:00etatik 12:00etara Susana Blascok Collage art tailerra emango du. Egun berean, 11:00etatik 18:00etara La Ménageriek animaziozko film labur

parte-hartzailea grabatuko du, muntaketaren ostean, emaitza San Juan plazan erakusteko 21:30etan. Ondoren, 12:00etatik 14:00etara #Patternprintpaper izenpean tailerra eskainiko du Lezuri Ormazabal Studiok. Juncal Alfonso & Arantza Albusuren kolaboraziotik sortutako Il Duomo "Hribidación de orbitales" izena duen hiriko artean oinarritutako proiektua aurkeztuko dute. 17:30etatik 20:00etara Ruben Castillejok "Cocina de Guerrilla" izeneko sukaldaritza et genero tailerra zuzenduko du. Horren ostean, 20:30etatik 21:30etara Bideoarte feministak Fem Tour Truck proiektua aurkeztuko du.

Maiatzaren 19an, igandean, 11:00etatik 13:00etara Irantzu Piquerok Analogikoaren itzulera izena duen tailer bat eskainiko du, bertan fanzine bat sortzeko aukera emateko. 11:00etatik 15:00etara gainera, Art Market izenarekin autoedizio azoka antolatuko da.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meakak auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webgunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GazteARTEan 2019: Haurren, nerabeen eta gazteen esparruko ikerketa beka

Gai nagusizat haurrak eta/edo nerabeak eta/edo gazteak dituen ikerketa eta ekintza proiektu bat garatzea.

Baldintzak:

- Proiektuak banaka edo taldeka aurkezteko aukera egongo da.
- Unibertsitate gradua edo litzentziatura izatea ezinbestekoa izango da lana aurkeztu ahal izateko.
- 35 urte azpiko gazteei zuzenduriko beka da.

Zenbatekoa: Proiektu irabazleak 8.000,00 euro eskuratuko ditu.

Epea: Lanen aurkezpen epea 2019ko ekainaren 28an itxiko da. Hilabete bakoitzeko azken ostegunean Raquel Calvo hezitzaile eta sexologoa Gaztelekuan egongo da, sexualitateari buruz dituzun zalantza guztiak argitzezko.



Sexu aholkularitza maiatzaren 30ean, osteguna

Bakarkar, bikotekidearekin edo lagunekin etor zaitezke. Aurretiko hitzordu bat hartzeko aukera ere izango duzu axorate@irun.org posta elektronikora

idatzi, 607 771 173 zenbakira WhatsApp aplikazioaren bitartez hitz egin, 943 50 54 40 telefono zenbakira deitu edo zuzenean gaztelekura hurbilduz gero.

Eguna: Maiatzak 30, osteguna.

Ordua: 17:00etatik 20:00etara.

Lekua: Martindozenea Gaztelekua. Zerbitzua dohakoa da eta erabateko konfidentzaltasuna du. ZATOZ ETA GALDETU!

BIME PRO Campus+ -erako deialdia ireki da

BIME PRO Campus+ badator aurten ere, musikaren industrian etorkizun bat izateko ametsa duten ikasle gazteentzat antolatutako trebekuntza-programa batekin. Erronka baten bitartez hautatuak izango diren sailkatu gutxi horientzat zuzenduko den ziklo bat izango da, hau sektoreko profesionalek emandako hitzaldi eta tailerrez osatuta egongo delarik.

BIME PRO Campus+ Lanbide, EURES eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanean antolatuta dago.

Saria: 5 egunetako heziketa (urriaren 28tik azaroaren 1era).

Plaza kopurua: Musika eta sormen-industriarekiko interesa eta grina duten arlo anitzeko Euskadiko edo estatuko 32 ikasle bilatzen dira.

Epea: Apirilaren 2tik ekainaren 2ra zabalik egongo da lanak aurkezteko epea.

Adina: Campusa 18 eta 28 urte arteko gazteei zuzendurik dago.

Aurkeztu beharreko proiektua: ikasleek etorkizunean musika-jaialdiak nola gozatu nahiko lituzketen hausnartu eta erronka teoriko-praktiko baten bitartez aurkeztu beharko dute.

Josu Gonzalezen Airetik! erakusketa

Lan honetan Josu Gonzalez artistak hegazkinekin bizitako momentu esanguratsuak ilustrazio moduan espresatu nahi izan ditu artistak. Aldi berean, azkeneko lau urtetan izandako marrazketa tekniken eboluzioa islatzen du.

Erakusketa bisitatzeko epea: Maiatzaren 11tik ekainaren 1era.

Ordutegia: Asteartetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara.

Tokia: Martindozenea Gaztelekua.



ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

AIRETIK!

Josu González

GAZTELEKU MARTINDOZENEA

2019|05|04 - 2019|05|01



MOLDATU HOME
INMOBILIARIA
HOME STAGING



MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA
Etxe bakaltza desberdina da, kontatu lezaguazu nolakan den zuri!

Higaztaren zerbitzuen kontzeptu berri bat aurkeztu dugu, etxebizitzaren alantzeran oinarrituta dagoena objektuen aurkezpen hobieraz egiteko.

BIZILEKUAK saldu nahi ditugu, ez soilik metro karratuak.

Inmobiliaria Urtzi Golegana eta Encarni Martínez Home Staging enpresak elkarrekin gure enkarguak, esperientziak eta gurekin lotu gaituz, gaurtik aurrera egiteko gogoa uzten dugu, etxebizitzaren salmenta / alokaria zerbitzu integratu eskaintzeko Home Staging teknikekin. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorago baten, erostelaren zailtasun jartzen garelako.

<https://www.inmobiliariaurtzigolegana.com>

<https://encarnimartinez.es/>

661875785
(Urtzi)

656748202
(Encarni)

Irungo kaleren arteko: Irurien auzo gaitzeko, Jose Ramon Agirrebe Alkate Jauregi 1. plazan.

Maiatzak

16

Hitzaldia: "Izar baten bizitza"

Zer: Celestia programaren laguntzari esker, benetako argazkien bitartez, izar baten fase guztietatik eta haren amaiera posibleak ikusiko ditugu.

Non: Kabigorri Bidasaldeko Ateneoa.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Doakoa.

Hizlaria: Oscar Otuño.

18

Dantza: "Trinomio"

Zer: Dantza ikuskizuna Trinomio Node kultur elkartearen eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrerak: 7,55 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatiletan emanaldiaren egunean.

Iraupena: 60 minutu.

19

Abesbatzen Eguna

Zer: Abesbatzen Eguna Ametsa, Argoiak, Atzokoak, Bidasaldekoak, Coros de Colores, Larraundi, Náyade eta Al-bada abesbatzen parte-hartzearekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:30etan.

Sarrera: Libre, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Maiatzaren 6tik aurrera turismo bulegoan eta soberan geldituz gero antzokiaren leihatiletan kontzertuaren egunean.



Denborapasen emaitzak

E	D	E	Y	E	Z	W	D	Y	R	G	I	W	M	V	V		
E	R	L	X	L	U	O	J	B	A	C	B	M	I	V	T	Y	
U	O	Y	O	A	C	B	Y	L	Y	C	O	M	K	Y	A	A	
L	A	R	A	N	J	N	K	Z	O	L	O	S	A	H	Q	L	
E	R	A	R	I	Y	K	E	L	E	M	J	H	A	D	E	Y	
E	E	D	Q	L	Y	W	E	K	A	J	Y	Z	I	D	Q	L	
R	A	A	B	J	C	K	S	Q	Y	C	P	V	O	B	E	A	S
A	E	Y	I	H	G	R	D	H	P	Z	Y	L	O	E	D	R	
E	I	P	B	L	V	E	U	H	M	U	G	U	R	D	I	M	
M	U	L	P	J	P	V	R	A	Q	C	A	N	I	E	K	A	
E	A	J	Z	E	W	Y	E	E	P	X	Z	I	U	A	J	H	
E	E	R	M	P	L	P	R	W	Z	K	D	G	Z	Z	U	A	
J	O	R	R	Z	E	D	W	O	I	G	F	E	D	E	T		
M	G	I	X	U	Y	G	C	X	O	B	U	A	F	C	T	S	
L	V	W	L	N	S	Y	K	A	O	Z	O	P	V	C	U		
F	M	I	Y	W	T	S	I	H	M	U	X	I	P	C	H		
Y	Y	N	M	J	W	U	D	X	Q	C	O	U	E	R	L	A	

6	3	1	2	4	9	6	8	7
5	2	4	8	3	7	1	6	9
8	9	7	1	8	8	3	4	2
9	4	8	5	2	3	7	1	6
2	1	6	4	7	8	9	5	3
3	7	5	6	9	1	8	2	4
1	8	3	7	6	2	4	9	5
7	5	2	8	1	4	6	3	8
4	6	9	3	8	5	2	7	1

23

Kontzertua

Zer: Irungo musika eskolako musika-hizkuntza eta akordeoi orkestrako ikasleen kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

25

Haur antzerkia

Zer: "Etzerik txikiena" haur antzerkia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Sarrerak: 4,50 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo emanaldiaren egunean antzokiko leihatiletan.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 50 minutu.

25-26

Maiatzeko mendi irteera Errioxara

Zer: Irungo Mendizaleak elkarteak berteranoentzako antolatutako maiatzeko mendi-irteera Errioxara.

Etapak: Lehena, San Roman de Camerosetik Munillara. Bigarrena, Encisotik Cornagora.

Irteera: Maiatzaren 25an goizeko 7:00etan Bixeratik.

Prezioa: 60 euro (autobusa, ostatua, afaria eta gosaria barne).

Izen-ematea: Irungo Mendizaleak Elkartearen astearte eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara edo elkartearen webgunearen bitartez.



CLINICA
BAVIERA

MIOPIA · HIPERMETROPIA · ASTIGMATISMOA

KAIXO IRUN!

Esan agur zure betaurreko eta lentilei



IREKIERAKO ESKAINTZA!

ZATOZ GURE **KLINIKA OFTALMOLOGIKO**
BERRIA EZAGUTZERA

Kolon pasealekua, 56 • Irun

ESKATU ZURE HITZORDUA KONPROMESURIK GABE

943 299 275
clinicabaviera.com

Irungo Clinica Bavieraren promozioa (Irunea, 2019/06/30 arteko promozio bitartean). Kontsulta 55€tan baliagarria. Mioopia, hipermetropia, astigmatismoa eta presbiopia etorkuntze auzko konpartimendu baliagarria. Ez da beste eskaintzara gehigarria. Probek baimenik ez dute. Tarifak 695€ begi bakoitzeko. Tarifak Oribis, 755€ begi bakoitzeko. Informazio gehiagorako: www.clinicabaviera.com/promo/ingurtertu. Oribis erregistratua 052016. 01/5.09/16.